



**Arartekoaren 2023R-2049-23 Ebazpena, 2023ko abenduaren 13koa.** Honen bidez, Uraren Euskal Agentziari (URA) gomendatu zaio Zirauntza ibaiaren ibilguaren inguruan (Asparrenatik igarotzen denean) metatzen diren hondakinen harira aurkeztutako salaketei erantzuna emateko dagozkion neurriak har ditzan.

### Aurrekariak

1.- Pertsona batek kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan Uraren Euskal Agentziak (URA) erantzunik eman ez ziolako bere eskaera bati. Eskaera aurkeztu zuen zehazteko zein organoren eskumena zen Zirauntza ibaiaren ibilguarekin mugakide den Asparrenako lursail baten inguruan metatutako hiri-hondakin solidoak eta ibaiertzeko landaredia kentzea.

Zehazki, kexagileak adierazi zuenez, 2022ko ekainaren 1ean, salaketa bat jarri zuen URA eta Asparrengo Udalaren aurka, ibai horretako ibilguan zeuden hiri-hondakin solidoen eta gehiegizko landarediaren harira. Adierazi zuen hondakinok ibaiko ura igarotzea eragozten zutela eta balitekeela ibaiak gainezka egiteko aukera areagotzea. Hori dela eta, administrazio biei eskatu zien esku har zezatela hondakin horiek kentzeko.

2022ko abenduaren 28an erantzun zion Asparrengo Udalak eta azken urteotan Zirauntza ibaia garbitzeko egindako jarduketan berri eman zion kexagileari. Zehazki, Udalak jakinarazi zion lursail mugakideetako jabeei eskatu ziela ibaia garbitzeko neurri egokiak har zitzatela. Nahiz eta Udalak eskatu jarduketa horiek egin ez zituzten jabeen kasuan, Udalak jakinarazi zuen URARI horren berri emango ziola, bere ustez erakunde hura baitzen zehapena jartzeko eskumena zuen erakundea.

20ko maiatzaren 19an, Uraren Euskal Agentziak erantzuna eman zuen eta baieztatu zuen bazeudela hiri-hondakin metatuak. Gainera, Agentziak Asparrenako Udalaren aurrean jarraitutako jarduketan berri eman zuen, hondakinen inguruan, bai eta eragindako lursailen jabeei lursaila berrezartzea eskatzeko udal-jarduketan inguruan ere.

2023ko ekainaren 11n, interesduna berriz ere URARA jo zuen eta bere salaketa errepikatu zuen. Horren bidez, eragindako gunean metatzen jarraitzen zuten hondakinak kentzeko eskatu zuen. Bidali duen azken idazki horretan URA agentziari informazioa eskatu zion aplikatzeko araudiari buruz eta ibaiko hondakinen esparruan zein zen ibilgua mantentzeko ohiko lanen esparruan eskumena zuen administrazioari buruz.

Kexagileak azaldu zuenez, eskaera egin zenetik hilabete baino gehiago igaro arren, ez zuen jaso eskatutako informazioaren berriazko erantzunik, eta horregatik jo zuen Arartekora.

2- Erreklamazio horri dagokion izapidea emateko, Arartekoak URARA jo zuen 2023ko abuztuaren 7an, eskaera horri erantzuteko jarraitutako jarduketan berri izateko.



Erantzunik jaso ez zuenez, 2023ko urriaren 31n, Arartekoak informazio hori bidaltzeko eskatu behar izan zion.

3- 2023ko azaroaren 7an, Arartekoan Uraren Euskal Agentziaren (URA) txosten bat jaso zen Asparrengo udalerrian Zirauntza ibaiko hondakinak ateratzeko eskaerei emandako erantzunarekin:

*"2022/06/13an , Uraren Euskal Agentzian (...) idazki bat jaso zen, zenbait alderdi argitzeko eskatuz: ibilguaren landaredia kentzea, hiri-hondakin solidoak kentzea (aurrerantzean, HHS) eta ureztatze-kanal pribatu baten gainean egindako obra bati buruz salaketa aurkeztuz.*

*2022/06/14an, URAk txostena bidali zion Asparrenako Udalari, jasotako eskaeraren berri emanez eta HHSak kentzeko eskatuz, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. Artikuluan xedatutakoaren arabera; izan ere, husteko ahalmena murrizteaz gain, ibai-ekosistemarentzat hondatze ekologiko handia dakartela uste da.*

*2023/01/27an, Asparrenako Udalaren txostena jaso zen, Udalak hondakinak kentzeko abian jarritako errekerimenduaren jarraipenari buruzkoa. Txosten horretan jakinarazten da oraindik ez direla hondakin guztiak kendu.*

*2023/05/19an, erantzun-txostena eman zitzaion eskatzaileari, eta eskatutako alderdiei buruzko informazioa eman zitzaion, ibilgura eroritako horma bat kentzea barne, telefono bidezko elkarrizketa bidez transmititua.*

*2023/06/13an, (...) beste idazki bat jaso zen, hasierako idazkia berretsiz. Bertan azpimarratzen denez, HHSak kentzeko eta husteko ahalmena murrizten duen landaredia kentzeko eskumena duen administrazioa ezagutu nahi da. Alderdi horiek 2023/05/19ko txostenean erantzun ziren.*

*Txosten horretan aipatu zen moduan, apirilaren 2ko 7/1985 Legean oinarrituta, udalerriri dagozkiola hiri-ingurumenaren, hiri hondakin solidoen kudeaketaren eta osasungarritasun publikoaren babesaren arloko eskumenak.*

*Bestalde, uztailaren 5eko 10/2001 Legearen bidez onartutako Plan Hidrologiko Nazionalaren 28.4 artikulua ezartzen duenez, hiri-eremuetan dauden ibilgu publikoetako jarduketak lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duten administrazioei dagozkie, Administrazio hidraulikoak jabari publiko hidraulikoaren gainean dituen eskumenei kalterik egin gabe.*

*Beraz, aipatutako araudiari dagokionez, udalerriri dagozkio HHSak kentzeko jarduketak eta hiri-tarteetako ibilguetan edukiera hidraulikoa kontserbatzeko jarduketak. Hala ere, Udalaren eta URAREN arteko lankidetzaren protokolo baten arabera, Uraren Euskal Agentziak egun Jabari Publikoa Leheneratu eta Zaintzeko Arloa dauka, eta horren bidez, ibai-ekosistemaren ingurumena hobetzeko eta*



gaitasun hidraulikoa hobetzeko jarduketak egiten dira, jarduketa horiek lehentasunezkoztat jotzen diren eremuetan.

*Kasu honetan, ingurua bisitatu ondoren, eta erantzun-txostenean adierazten den bezala, hondakin asko daudela ikusten da, eta horiek, husteko ahalmena murrizteaz gain, ibai-ekosistemaren hondatze ekologiko handia eragiten dute. Horregatik, beharrezkoztat jotzen da horiek kentzea, eta Udalak sustatu behar du lan hori.*

*Nahiz eta, URAk, lankidetzeta-protokoloaren esparruan, husteko ahalmena nabarmen murrizten duten egur zati edo landaredia metatzen direla ikusiz gero, horiek kentzea baloratu zezaken, kasu honetan, ez da egokitzat jotzen aipatutako zatian dagoen landaredia kentzea, ez baita nabarmen murrizten husteko ahalmena.”*

Kexa hori ikusita eta horren planteamendua eta emandako informazioa aztertu ondoren, Arartekoak bidezkoztat jo du zuri hau jakinaraztea:

### Gogoetak

1. Kexagileak aurkeztutako salaketari dagokionez, adierazi behar da, oro har, administrazio publikoek, herritarrekin dituzten harremanetan, bermatu egin behar dutela jarraitutako izapideen trazabilitate egokia, dagokion administrazio-prozeduraren bitartez, eta administrazio onaren irizpideen arabera.

Herritarrek administrazio onerako duten eskubideak berekin dakar aurkezten diren idazkien hartu-agiria emateko, idazkiak ofizioz sustatzeko eta azaldutako gaien arazoizko epean nahitaez erantzuteko beharra betetzea.

Administrazio onaren printzipio horiek ere aplika daitezke kexan azaldutako gaien eta antzekoetan. Kasu honetan, pertsona batek salaketa bat aurkeztu zuen organo eskudunean, Zirauntza ibaiaren ibilguarekin mugakide den Asparrengo lursail baten inguruan metatutako hiri-hondakin solidoak eta ibaiertzeko landaredia kentzea eskatzeko.

2. Hondakinak bertan behera uztea kontrolatzeko esku-hartze publikoaren eremuari dagokionez, adierazi behar da gai hori hainbat araudi sektorialek osatzen dutela eta administrazio eskudunei dagokiela.

Hondakinen metatzea noren ardura den zehaztean, Ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legea aipatu behar da.

Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 104. artikuluan ezarritakoaren arabera, hondakinen arloko erantzukizuna ekoizlearena, kudeatzailearena edo, hala badagokio, jabearena izango da.

Bestalde, hondakinak etxekoak izan daitezke, etxeetako jardueren ondorioz sortutakoak, edo beste jarduera batzuetakoak, hala nola nekazaritza- eta



basogintza-hondakinak, eraikuntza- eta eraispén-hondakinak edo industria-jarduerak sortutakoak.

Etxeko hondakinak kontrolik gabe utziz gero, toki-erakundeek izango dute zehatzeko ahalmena. Horrela, udalek zaintzeko eta ikuskatzeko ahala eta zehatzeko ahala baliatu behar dituzte. Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak berariaz hartu du kontuan udal-eskumena hiri- edo udal-hondakin solidoen bilketa eta tratamendurako zerbitzuen kudeaketan eta kontrolean.

Kasu horretan, indarrean dagoen apirilaren 8ko 7/2022 Legeak antzeko arau-hauste bat jaso du 108. artikuluan, non berariaz jasotzen baitu naturan sakabanatutako zaborra abandonatzea (arauan "littering" ingelesezko terminoa ageri da).

Bestalde, gogoratu behar da, hirigintza-diziplinaren esparruan, lurren jabeek segurtasun-baldintzetan kontserbatzeko betebeharra dutela, osasungarritasunerako eta apaingarri publikoetarako arriskuak eta pertsonentzako eta gauzetarako arriskuak saihesteko. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 199. artikulua ezarritakoarekin bat eginez jaso da betebehari hori. Halakoetan, dagokion espedientearen bidez betebeharra betetzen dela bermatzeko eskumena du udal administrazioak; eta, dagozkion txosten teknikoak bildu ostean, gauzatzeko aginduak eman, eta betebehari horiek betetzeko beharrezkoak diren neurriak betetzeko aginduak eman.

Hondakinei eta hirigintzari buruzko legerian jasotako udal-eskumena alde batera utzi gabe, jabetza pribatu batean sakabanatutako hiri-hondakin solidoei dagokienez, jabari publiko hidraulikoa eta haren zortasun- eta polizia-eremuak babesteko araubideari dagokionez botere publikoari dagokien esku-hartze eremua ere aipatzen du salaketan azaldutako kasuak.

3. Uraren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 94. artikulua uren eskumenei dagokienez aitortzen du administrazio hidrauliko eskudunak egingo duela uren eta jabari publiko hidraulikoko gainerako elementuen, zortasun-eremuen eta babes-perimetroen polizia. Arroko erakundeen eginkizunen artean daude jabari publiko hidraulikoa ikuskatzea eta kontrolatzea.

Horri dagokionez, Uren Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikulua jabari publiko hidraulikoa kutsatu edo degradatzea eragin dezakeen eta, bereziki, edozein naturaren hondakin solidoak, obra-hondakinak edo substantziak pilatzea eragin dezakeen jarduera oro debekatzen du.

Euskal Autonomia Erkidegoko Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legearen kasuan, Uraren Euskal Agentziak jabari publiko hidraulikoa arautzen duen araudiaren aurkako arau-hausteak ikuskatzeko eta zigortzeko eskumenak ditu, bai eta



zortasun- edo polizia-eremuenak ere, edozein motatako objektuak, materialak edo substantziak metatu edo isurtzeagatik.

Kasu horretan, ekainaren 23ko 1/2006 Legearen 60. artikulua jasotzen du arau-hausleek jabari publikoari eragindako kaltea konpontzeko betebeharra, ezartzen diren zehapenetatik aparte. Kasu horietan, arroko organoak gauzak lehengo egoerara itzultzeko eska dezake, eta hori ezinezkoa denean, dagozkion kalte-ordainak ezarriko dira.

Zehazki, administrazio eskudunak araua bete ez duena behartu ahal izango du gordailututako edozein motatako objektu, material edo substantziak kentzeko beharrezkoak diren lanak egitera, baldin eta kalte egiten badie jabari publikoari edo haren zortasun- eta polizia-eremuei. Kalteak sortu dituenak horiek konpontzeko beharrezko ekintzak gauzatzen ez baldin baditu, *“egikaritze subsidiarioa gauzatuko da, arau-hausleari aurretiaz horren berri emanaz, eta epe bat ezarriko da modu boluntarioan egikaritu ahal izateko”*.

4. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak aztertu du arroko erakundeek eta udalek duten eskumena ibilgu publikoak mantentzeko, garbitzeko eta kontserbatzeko ohiko lanak egiteko.

Horri dagokionez, ekainaren 10eko Auzitegi Gorenaren 2302/2014 Epaian aipatu zen, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 25. eta 26. artikuluen arabera udalerriei dagokiela ibaietako ibilgua garbitzeko eskumena, hiriguneetatik igarotzen direnean. Hala ere, ez zen argi eta garbi zehazten hondakinen metaketa eta tratamendua soilik ibaien garbiketari edo bide publikoen garbiketari dagokion. Nolanahi ere, Epaiazen arabera, toki-araubidearen legeriaren edo uren legeriaren aginduetatik ez zen ondorioztatzen ibaien ibilgua hiri-eremuetatik igarotzean ohiko garbiketarako eskumena arroko organoei zegokienik.

Izan ere, horrek ez zituen salbuesten inola ere arroko organo horiek ibaien eta ibai-ibilguen garbiketari buruzko ikuskapen- eta polizia-eginkizunak betetzetik.

*En ningún lugar se dice, en suma, que los trabajos cotidianos de limpieza del cauce de los ríos sean competencia del organismo de cuenca. Es verdad que tampoco se dice a quién competen, del mismo modo que seguramente lo es que el organismo de cuenca, precisamente como consecuencia de sus funciones de inspección y policía, no podría legalmente desentenderse de que los cauces de los ríos estén suficientemente limpios. Pero de aquí no se sigue que las operaciones materiales de limpieza ordinaria del cauce no sean encomendadas por la ley a otra Administración pública o, en su caso, a otras personas”*.

Horretarako, epaiak funtsezkotzat jotzen du Plan Hidrologiko Nazionalari buruzko Legearen 28.4 artikulua aurreikuspena. Artikulu horren arabera, hiri-eremuetan dauden ibilgu publikoetako jarduketak lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duten administrazioei esleitzen zaizkie, hargatik eragotzi gabe Administrazio Hidraulikoak jabari publiko hidraulikoaren gainean dituen eskumenak.



Epaiak argitzen duenez, "hiri-eremuak" ez dira zehazki ibaiak zeharkatzen dituen lursailen hirigintza-sailkapeneko guneak, baizik eta materialki hirikoa den espazioa; "hau da, herri edo hiri bati eta haren inguruei".

Laburbilduz, Auzitegi Gorenaren 2014ko ekainaren 10eko Epaiak ondorioztatu zuenez, "No tener atribuida la competencia para la limpieza del cauce de los ríos a su paso por zonas urbanas sólo significa que el organismo de cuenca no tiene el deber legal de llevar a cabo dicha actividad. No significa que por vía convencional no pueda asumirla en determinados términos municipales.

Irizpide hori berretsi zuen 2017ko abenduaren 13ko Auzitegi Gorenaren 4626/2017 Epaiak. Horrek azpimarratzen baitzuen, 10/2001 Legearen 28.4 artikulua arabera, udalaren eskumena zirela ibilgu publikoetako jarduketa "arruntak", hiri-eremuan ematen direnean.

Hala ere, oso garrantzitsua da uztailaren 27ko Auzitegi Gorenaren 3338/2021 Epaiak. Izan ere, Auzitegi Gorenak zehazten ditu arroko organoari jabari publiko hidraulikoko ibilguak mantentzeko dagozkion administrazio-eskumenak, bai eta horiek modu diskrezionalean baliatzea ere.

Epaiaren arabera, " (i) si bien los arts. 23 y 24 del Texto Refundido de la Ley de Aguas de 2001, no dicen que la limpieza del cauce de un río sea en todo caso competencia del organismo de cuenca, y que (ii) es perfectamente posible que las tareas ordinarias de limpieza de cauces sea atribuida por la ley a otra Administración pública o a otras personas, ello no obstante, (iii) las funciones de inspección y policía que corresponden a los organismos de cuenca implica que no pueden legalmente desentenderse de que los cauces de los ríos estén suficientemente limpios.

Hala, epaiak onartzen badu ere 10/2001 Legearen 28.4 artikulua arabera, hiriguneetako ibilgu publikoak garbitzeko eragiketa materialak udal-administrazioei dagozkiela, ñabardura garrantzitsu bat aipatzen du; izan ere "en defecto de atribución expresa de la competencia a otra Administración o a otros usuarios del dominio público hidráulico, y sin perjuicio de las técnicas de colaboración entre Administraciones, la competencia para las operaciones materiales ordinarias de limpieza de los cauces públicos corresponde al organismo de cuenca al que corresponde, asimismo, la carga de justificar motivadamente cuándo la competencia corresponde a otras Administraciones o usuarios".

Bestalde, argitu duenez, "esta potestad que corresponde al organismo de cuenca dentro de deber general de policía del dominio público hidráulico al que antes aludíamos, no es de ejercicio discrecional, sino reglado, pues deberá ejercerse de conformidad con las previsiones contenidas en las normas que sean sectorialmente aplicables en materia de planificación hidrológica y territorial, así como en materia de medio ambiente. Sin que, por esta misma razón, pueda sostenerse que exista un derecho subjetivo de los particulares (o de otras Administraciones públicas) a



*exigir la limpieza de los cauces, pues esta actividad que incumbe, como regla general, a los organismos de cuenca dentro de su deber de policía, debe acomodarse en su ejercicio en todo caso a las previsiones que deriven de la normativa que resulte sectorialmente aplicable conforme a la planificación hidrológica y la correspondiente ordenación territorial y medioambiental que son las que delimitaran los términos, contenido y alcance en los que tal función de limpieza y conservación ordinaria de los cauces públicos deba realizarse”.*

Laburbilduz, Auzitegi Gorenak Epaian adierazitakoaren arabera, uste du ibilgu publikoak modu arruntean garbitzeko eskumena arroko organoaren eskumena dela oraindik ere, jabari publiko hidraulikoaren gaineko polizia-eginbeharretik baitator. Horrela, organo horrek justifikatu beharko du, arrazoiak emanez, beste administrazio batek betebeharrak beteko duela adostu denean. Nolanahi ere, hura gauzatzea ez da diskrezionala eta ez dago aurrekontu aukera edo eskuragarritasun kontuei lotuta, arauz baliatu beharreko eskumen bat da baizik.

Horretarako, garbiketa lanak plangintza hidrologikoan edo, hala badagokio, lurralde antolakuntza eta ingurumen arauetan ezarritako terminoak betez egin behar dira, ibilguak garbitzeko eskakizuna partikularren (edo beste herri-administrazio batzuen) eskubide subjektiboa dela ulertu gabe.

5. Kasu horretan, komeni da baloratzea ahal publikoak baliatzea derrigorrezkoa den.

Ingurumena eta ibaien ibilguko hondakinak metatzea babesteari dagokionez, lehen aipatutako lege-aurreikuspenak ez betetzeak beti ekarri behar du zehatzeko ahalmenak eta ingurumen-erantzukizunaren arloko ahalmenak erabiltzea.

Administrazio publikoek ahalmen horiek derrigorrez erabili beharra Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikulutik eratorritako legezkotasun-printzipioaren eta arbitrariotasun-debekuaren ondorio saihestezina da. Hartara, administrazio publikoek, oro har, zehapen-ekintzaren ofizialtasunaren eta derrigortasunaren printzipioa aplikatu beharko dute.

Horregatik, diziplina edo zehapen espedientearen hasiera arautua da, Administrazioako organo eskudunentzat betebeharra delako arau-hauste administratiboak pertsegitzea. Halaber, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak irizpide hori bera du. Auzitegi horrek, 2019ko urtarrilaren 28ko epaian (494/2019 errekurtsua), adierazi zuen Administrazioak ezin dituela alde batera utzi zehapen-arloan dituen eskumenak *“pues sus competencias, también en esta materia, son irrenunciables y deben ser ejercidas con sujeción al principio de legalidad por el órgano que las tiene encomendadas”*.

6. Beste kontu garrantzitsu bat ere aipatu behar da. Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak uste badu partikularrek ibilguak garbitzeko duten eskubide subjektiboa ez dela ordenamendu juridikoaren parte, horrek ez du eragotzi behar



pertsona orok bere eskaera-eskubidea egikaritzea edo ingurumen-legeria ez betetzeagatiko salaketak formalizatzeko eskubidea izatea.

Ingurumen-salatazaileak berak ekintza publikoa gauzatzen duenean, Euskadiko Ingurumen-administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 17. artikulua araberako, *"Nornahik eskatu ahal izango die eskumena duten administrazioei ingurumen-legezketasuna berrezartzeko neurriak edo ingurumen-kalteengatiko erantzukizuneko neurriak hartzea, eta lege honetan xedatutakoaren arabera arau-haustek izan daitezkeen jardunak salatzea."*

Kasu horietan, ingurumen-salatazaileak prozedurazko hainbat eskubide ditu, administrazio eskudunak kontuan hartu beharrekoak administrazio espedientea izapidetzean sektoreko legediari jarraituz, eta 39/2015 Legean xedatutako arauekin bat etorritik.

7. Azkenik, adierazi behar da, aurrekarietan aipatutako erantzunean, URaren arabera aplikagarria da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan ezarritakoa. Horri dagokionez, udal-administrazioei dagozkie hiri-ingurumena eta osasungarritasun publikoa babesteko eta hiri-hondakin solidoak kudeatzeko eskumenak.

Bestalde, uztailaren 5eko 10/2001 Legearen bidez onetsitako Plan Hidrologiko Nazionalaren 28.4 artikulua araberako, udal-administrazioek hiriguneetako ibilgu publikoen gaineko jarduketak egin behar dituzte, Administrazio hidraulikoak jabari publiko hidraulikoaren gainean dituen eskumenei kalterik egin gabe.

Horrela, URaren arabera, udalei dagozkie hiri-hondakinak kentzeko eta hiri-eremuko ibilguak kontserbatzeko lanak egitea. Nolanahi ere, URAk aipatu du udalekin lankidetzaren protokolo bat formalizatu duela, eta Agentziak ingurumena eta hidraulika hobetzeko jarduerak egiteko konpromisoa hartu duela *"jarduera horiek lehentasunezko zatitza diren eremuetan"*.

Arartekoaren ustez, URaren erantzunean ez da kontuan hartu Auzitegi Gorenaren irizpidea, hau da, ibilgu publikoak modu arruntan garbitzeko eskumena, arauz, arako organoaren eskumena dela, jabari publiko hidraulikoaren gaineko polizia-eginbeharretik baitator. Horrela, arako erakundeei dagozkien ikuskapen- eta polizia-funtzioek dagozkien eskumena gauzatzea dakarte, ibaien ibilguak behar bezain garbi daudela bermatu arte.

Aldiz, kasu honetan, Zirauntza ibaiaren ibilguan hondakin ugari hauteman ondoren, husteko gaitasunari eragiten baitzioten eta ibai-ekosistemarentzat narriadura ekologiko handia eragiten baitzuten, URAk adierazi duenez, Asparrenako Udalaren eskumena da hondakin horiek kentzea.

Horri dagokionez, bidalitako informazioaren arabera, Asparrenako Udalak ibilgutik bost metro baino gutxiagora utzitako hondakinak kentzeko eskatu zien lau lursailen jabeei, baina salatutako bik ez zituzten beharrezko garbiketa-lanak egin.





Arduradunek esku hartu ez zutenez, Asparrenako Udalak URAREN esku-hartzea eskatu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Uren ekainaren 23ko 1/2006 Legean araututako eskumenen barruan.

Hala ere, ez dago jasota URAk Asparrenako Udalaren eskaerari erantzun dionik, kexaren xede den lursailaren jabeak garbiketa-errekerimendua bete ez duelako, ez eta kexagileak salatutako hondakinak kenduko direla bermatzeko gerora egindako eskaerari ere.

Gogoeta horiei amaiera emateko, Arartekoak ondorioztatu behar du URAk ez diela behar bezala erantzun egindako eskaerei, Zirauntza ibaiaren ibilguan hondakinak benetan kentzen direla bermatu arte dagozkion ikuskapen- eta polizia-eskumenak argitu eta erabiltzeko betebeharrari dagokionez.

Horregatik guztiatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Arartekoak honako gomendio hau egin dio Uraren Euskal Agentziari (URA):

#### Gomendioa:

Asparrenatik igarotzean Zirauntza ibaiaren ibilguaren inguruan hondakinak metatzeagatik aurkeztutako salaketei erantzuteko neurriak bultzatzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Urei buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legean aurreikusitako ikuskaritza- eta polizia-eginkizunak bete ditzala, ibai-ekosistema degradatzen duten utzitako hondakin guztiak ezabatzen direla bermatzeko.